

HONDARRIBIA



D. L. S. S. 122/86 Ino. R. Fernandez / Aroa 27. 1991

38. zenbakia

UDAL EUSKARA - KONTSEILUA

60 pta.

1990. apirila



JOSE MARIA ETXABURU

Jose Maria Etxaburu Etxaburu "Kamiriazpi", aspaldi honetan Hondarribian bizi den ondarrutar prestua dugu. Bere bizitzan zehar, makina bat lan egin du euskararen alde. Besteak beste, "Ondarrabiako Kondaira" eman digu euskaraz. Igaz ere "Neure lau urteko ibillerak" argitaratu zuen gerra garaiko exilioko joan-etorriak kontatuz. Berarekin ari gaituzue solasean Blaga-ko orrialdeetan barrena.

Lourdes Zubeldiak lagun min baten galera sortutako nahigabea adierazten digu.

Eta Martin Iturbek itsas ibilaldi batek sortutako gogoetak.

Lehengoa omen zirela neguak esaten du Sorkunde.

Martin Ugaldek Belgika aldean aurkitu duen historia ez omen da irakatsi digutena bezalakoa.

Juan San Martin Elortxuriko azkon batez mintzo zaigu.

Badakizue zer den kolaka eta nola marenaute daitekeen sukaldean? J.J.Lapitzek irakatsiko dizu.

Hori dena eta gainera "Hondarribiko Kanta Olinpiako" ere aurkituko dituzue orrialde hauetan.

III HERRI OLINPIADA, ZE FINI

Hondarribia txikia da lurrez, handia, ordea, bere kirol eta kultur ekintzetan. Grezia bezala, Olinpoko jainkotxo eta jainkosak barne. Eta, egia esan, aurtengo Olinpiadak txikiak utzi ditu Mediterraneoko haiek.

Hogeitahemezortzi taldek ematen zuten izena eta eginahalaren eginhalaz hogeitabederatzik irauin zuten bukaera arte.

Neskek osatutako bederatzik ekipok azkenerraino eutsi zioten lehia gogorriari. "Sorginek", adibidez, azken sailkapenean atze samarrean gelditu bazitzaizkigun ere, agerpen artistikoetan, parodian eta bertsotan, lehenengoak izan ziren. Txingetan ere KokoTxuri-koek hirugarren postua bereganatu zuten meritu osoz. Bixi-Bixiok bikain aritu ziren eta txintxorroetan hirugarrenak izan ziren. Eta bertsotan, zortzi finalisten artean bi neska gelditu ziren denen aurretik: lehendabizi "Sorginen" ordezkaria eta bigarren Koko-Txurirena.

Olinpiadako destapea, berriz, Maxina-Sex-koena izan zen, ajeak aje eta Olinpiadako "attonak" izaki, saski-baloiko garaipena irabazi bait zuten inoren uste eta pronostiko guztien kontra.


Azken sailkapenean TTipi-TTapa gelditu zen lemxiki, Bankonabo bigarren eta Alaxka-Tabaxka hirugarren. Nesken artean "Txoro-Bolara" izan genuen onena.

TTipi-TTapak sokatiran ez zuen pareko kontrarik izan, nahiz eta saski baloiko finalean porrot egin zuen. Tximindularitzan ere horrela gertatu zen. Foballeen Txurri-muskiko portugarrak gertatu ziren irabazle eta arraunean Bankonabokoak.

Primeran atera da, beraz, III Herri Olinpiada, partaidetza handia eta ikusle ugariarekin.

Azken egueko bazkaria, giro ezin hobean 650 lagun eseri zirela Bentako mahalean. Herriko sei elkarteak antolatu zuten bazkaria.

HONDARRIBIA. HONDARRIBIA
TXOL HERRI EDER GARBIA.
BARTZELONAKO OLINPIADAK
EZ TTUK HAUEKEN ERDIA!



ARROSA BEZALA, EDERRETAN EDERRA

Zerbat gizona gainditu eta mintzen due-
nik bada, heriotza da. Are gehiago maite
dugun norbait harrapatzen badugu. Ez dira
eraz eramaten honek sortzen dituen senti-
pen minak eta oroitzak.

Behin baino gehiagotan etorri zait gogo-
ra zutaz zerbat idaztea, Maria Anjeles, bai-
na erraxago zen neretzat denborak eskein-
tzen digun sendagaietan babestea oroitzen
xixtakoak errebertitzea baino.

Zeure tankera berexi horrekin, zeu au-
rreratu zarenez, zor nizuna betetzera be-
hartsu nauzu.

Honela zenion: "Ni hiltzen naizenian,
Santiagutxan ateratzeko meza bat eta beste
ezagunen artian abisatu Caritas-eko lagu-
nakeri nahi badute meza hortara etorri".

Nola ez bete zure nahia, Maria Anje-
les... Hantzen izandu ginen Santiagutxoko
elizatzokan eta gudan sentitu ere genuen
zuk hain ederki zure bizitzan zehar egiazta-
tu zenuena, gogoaren eta edertasunaren
betekada.

Eskerrikasko, Maria Anjeles, goiz eder
hura guri eskeintzeagatik. Santiagutxoko al-
derdi eder eta zoragarrien artean zure far
eta esaera hura entzuten baintuen: "portu-
gar ok ezitlen besterik: beuden portua eta
beuden portua". Eta ez zitzaizun arrazoi-
a falta zure bi lehengusu portugarrek egun
horretan ikusi baitzuten lehenbiziko aldiz
Santiagutxo. Tokiak eskeintzen dituen ikus-
kizunak eta edertasunak erabat zozotuta
honela zioten hariduraz: "Mailurdes! Hau
bai gauz preziosua! Mifon non bizi gera toki
politi hok ikusi gabe... Haatik etorri behar
dugu geyogotari".

Bai. Maite zenituen mendiko soro, zelai
eta bideakak. Hainbat aldiz joan zinen San-
tiagutxora, Guadalupeara...

Nahiz eta Hondarribiko alderdi urrun xa-
marrean bizi, zure bihotz zabalak erabat he-
ritar osokoa egin zintuen, honen taupada,
ohitura edo tradizioetan. Nor ez zaitu ikusi,
zure gaitz eta guzi, kalejiran, Gabonetan,
zure pafuelo berdian lepoan estropadak ani-
matzen, eskursioetan humore ona eskein-
tzen, parrokiko koruan kantari, tonbolan,
kaputxinoen aldaera garbitzen, Caritasen
eginbehar xiletan, hainbeste urtez Mondra-
goeko gaxoak bixitatzen?

Beti xintxo, garbi eta alai. Oraindik go-
goratzen naiz, zuri bularra kendu ondoren
eta zure laguna Margarita Iridoyi ere, nola-
kua izandu zen operazio ondoko zuen le-
henbiziko toparia. Hurbildu zinetenian, biek,
eskuak kolkuatan sarturik, bular postizua ate-
ra eta berarekin erreberentzi haundi bat egi-
naz, elkar agurtu zenuten: "Señora, ni enan
hi biñon gutxiago, gaxol". Zenbat aldapa ez
ote diren bihotzean igo beharko humore ho-
rrekin agurtzeko!

Azkeneraino burrrukatu zenuen zure
gaitzarekin eta behar bada horregatik irauin

zenuen urte asko berarekin, behin baino
gehiagotan erreplikatzan zenuela: "Ni enan
hontatik hilko, ez haatik...". Baina gaitzak
bentzutu ahala, honela zenion: "aluhonek
orain nik biñon gehiago agintzen diñ". Ez
zuen gehiago borrokatu nahi. Norbaitek "ki-
mia" hartzera joateko animatzen bazuen,
hauze erantzuten zuen: "fay! hi, nabadun.
Ezta batere. Nahikuak hartu titat eta horra
zertako...". Ezaguera haundiz, ez zaulka

ezer egiterik jabetuz, pixkana pixkana eta
ixil-ixilik joan zitzaizun gure lagun maitea.

Uste baino erraxago izandu zait lerro
hauek idaztea, zure alaitasuna une baitze-
tan gogoratuz, nahiz eta gure oroitzek, arro-
sa bezala, ederretan ederra, usai gozoz be-
tea baina arantzekin, sentitu zaituzten.

Lourdes Zubeldia



ASTE SANTUKO ELIZKIZUNEN ORDUAK - 1990

ERRAMU EGUNA:

- Goizeko 10,15 etan. Erramuk bedinkatzea. Ibildeuna.
10,30 etan. Meza Nagusia Parrokian.
Arrats. 6,00 etan. Errosarioa eta Gurutzbidea. (EUSKERAZ).
Ondoren, Meza erreztua. (BIETARA):

ASTELEHEN SANTU:

- Arrats. 8,00 etan. Penitentzi elizkizuna GAZTEENTZAT, Portuko elizan (BIETARA).

ASTEARTE SANTU:

- Arrats. 4,00 etan. Penitentzi elizkizuna Helduentzat, Portuko elizan (EUSKERAZ).
Arrats. 8,00 etan. Penitentzi elizkizuna HELDUENTZAT, Portuko elizan (EUSKERAZ).

ASTEAZKEN SANTU.

- Arrats. 4,00 etan. Penitentzi elizkizuna Helduentzat Portuko elizan (ERDERAZ).
Arrats. 8,00 etan. Penitentzi elizkizuna Helduentzat, PARROKIAN (ERDERAZ).

OSTEGUN SANTU:

- Arrats. 6,00 etan. Umeekiko elizkizuna Portuan (BIETARA).
8,00 etan. Elizkizun Nagusia Parrokian (BIETARA).

OHARRA: URTEORO BEZALA, 5 etan meza bat izango da Portuan (EUSKERA).

OSTIRAL SANTU:

- Goizeko 10,00 etan. Gurutzbidea parrokian (EUSKERAZ).
Eguzdi 12,00 etan. UMEENTZAT: Jaunaren heriotzaren ospakizuna Portuan (BIETARA).
Arrats. 5,00 etan. Elizkizun Nagusia Parrokian (BIETARA).
Gurutzetik eraitea, hitzaldia, ibildeuna.

LARUNBAT SANTU:

- Arrats. 6,00 etan. UMEENTZAT: Pazko ospakizuna Portuko elizan (BIETARA).
Arrats. 9,00 etan. Pazko elizkizuna eta Meza Nagusia Parrokian (BIETARA).

PAZKO IGANDEA:

- Goizeko 10,00 etan. Gudarien erortzea. Ttopara, Ibildeuna.
10,30 etan. MEZA NAGUSIA PARROKIAN (BIETARA).

PIZTU DA KRISTO HILLEN ARTETIK, ALLELUYA!!!
GU ERE BERAREKIN PIZTUKO GARA, ALLELUYA!!!

ITSASORA IRTEN NAIZ

Denborak ziren itsasora irten ez nintze-
la. Eta oraingoan, aste berean bi aldiz irten
beharra izan dut.

Edozein arrantzalek itsasontzi bat esku-
ratzen duenean, berria edo bigarren esku-
koa izan, berdin zaio, betidaniko ohiturari
jarraituz, bedinkapen hitzak itsas bizkarre-
an oihukatzen.

Hor joan nintzen, bada, ontzi berri hoie-
tako batek eskaintzen zigun aukera apro-
betxatuz, bedinkapen hitzak itsas bizkarre-
an oihukatzen.

Horrelakoetan guztia poza, guztia itxa-
ropena, guztia elkarriketa gozoa gerta ohi
da.

Etxeokak, lagunak, ezagunak... aitzaki
polita itsasoan zehar ibilaldirio bat egiteko.
Egia esan, itsasontziak, beste edozein be-
zala, bere nortasuna du, gizakiaren erabil-
gailu izatearen nortasuna du. Ontzia bide,
bertan ibiliko diren gizakiaren gainera dator,
apaizak edo beste edonork isuri ditzakeen
asmo on, hiltz zabal eta Jainkoaren bede-
inkazio guztia.

Etorkizunerako suertetik onena elkarri
opa izanez burutzen da, oraindik bizirik da-
goen arrantzaleen arteko ohitura hori.

Bigarren itenaldia guztiz ezberdina ger-
tatu zait. Gure itsaso zabal honek, maiteki-
de xamurrak bezela askotan gure izpazte-
rrak goxokiro musukatzen dituen itsaso
honek, bere sabelera irentsi balizuen aurre-
ko egun batean, bere semearentzat osa-
sungai bezela ur pixka bat jasotzera inguru-
tu zitzaion emakume jator bat. Ana Mari.
Iruindarra bera.



Itsasontzia jendez leporaiño bete. Hil-
dakoaren senarra eta bi seme tartean.

Zorlaxarra nagusitzen denean, gauzarik
txikiena ere zorionbide iruditzen zaizkigu.
Oraingoan, zorionaz!!!, hildakoaren gorpua
berehalaxe aurkitu zuten eta jaso.

Bizitzak dituen misterioen artean, he-
men ere misterio bat nabarmendu zen:
itsasoak azken arrasa ebatsi zion emaku-
meak, bere gogoa agertua zeukan aspaldi-
tik, alegia, bera hilko zenean, gorpuzkia it-
sasora zedila. Eta itsasoan hilt!!!

Nahigabea eta hotzikara guztion begie-
tan... Dardara biziz zekarren eskuetan
gorputz erraustuaren hauta zeraman kut-
xatilla, heriotzak bereganatu zuen emaku-
mearen senarrak.

Isiltasun biziaren horra bihotz zelaitan
nagusi genuen.

Emakumearen gorpua itsasora erori zen
lekura inguratu ginen, kutxatilla ireki eta,
hazia soroan erreiten den moduan, itsas gai-
fiera isuri zituzten, esku txokoan sar zitez-
keen emakumearen gozputz osoaren hauts
izpiak.

Itsasoak, apaltasunez bezela, eta egi-
dako okerrarengatik barkamen eskatuko
balu bezela, bere besoetan jaso zituen, ur
gazitan deseginak izango ziren hondakin
apurrak.

Une zailak askotan agertzen zaizkigu
bizitzan zehar, baina egiaz zerbait zaila
baldu bada, horrelako uneetan hitz bat esa-
tea da zaila. Gertatu zenak ez zeukan erre-
mediorik. Hala ere, norbaitek oihukatu be-
har izaten du itxaropenezko HITZ sakon
bat. Neri gertatu zitzaidan HITZ hori esatea.

Hitz urratuak... -nola ez!!- mingain labu-
rretik irten ziren hitzak. Bihotz berotz esaten
direnak, ordea, badute halakoxe indar be-
reizi bat. Indar hura elkarri kutsutu geniola
uste du.

Norberak sakontasunez sinisten duena
besteri eskaintzen dionean, halakoxe ar-
nasberri misterioz bat loratzen da emai-
learen eta hartzaileen artean.

Hantxe garatu ziren, itsas gainean ku-
lunkan, lekuaren testigutza egiten zuten
lore ugariak. Itsasoaren gazitasunarekin na-
hasia genekarren ezer gehiago ezin egin
ahal izatearen nahigabe garratza. Ura eta
ametsa, biek ziren gaziak.

Lur gainean gehiagoren gehiagoz oihik
tinkatuko ez duen izaki ezkatatu hark, au-
reruntzean aulki nagusia izango du, etenik
ezagutzen ez duen maitasunak eskaintzen
dion bihotz txokoa.

Begietako mailkoak eta haizeak aurpe-
giari itsasten zizkion ur zipritin lanbrotzsuak
gazitasun bakarrean kibiztatu zitzaizkigun.

Hildakoaren gorpua atsedean leku bus-
tia eman ondoren, lur legor eta gogorreko
bizitzeari aurrerabide ematera bihurtu gi-
ñen, mailkoz, isiltasunez eta otoiuez gure
maitasunaren testigutza agertu genuenok.
Azkenean, oihu ulerkaitz bat gertatzen da
bihotzean txeraturik:

Agur; Egun Haundira arte, ANA MARI!!!

Martin Iturbe

OHARRAK

TXANDAKO BOTIKAK

Apirilak 9 - 15: Iraola
16 - 22: Erauskin eta Fiz
23 - 29: Mai
30 - Maiatzak 6: Iraola
Maiatzak 7 - 13: Erauskin
14 - 20: Mai eta Fiz
Mai, Alm, Alonso kalean - 642191
Iraola, J. Ugarte Kalean - 641027
Erauskin, S. Pedro Kalean - 641018
Fiz, Donostia Kalean - 644316

TXANDAKO OKINDEGIAK

Martxoak 8: Martinez
13: Arratibel
15: Garmendia
16: Martinez
Maiatzak 1: Ez da ogirik egingo
6: Arratibel
13: Garmendia
Arratibel, Zubietako Kalean - 641975
Garmendia, Santiago Kalean - 641136
Martinez, Kale Nagusian - 641212



Belgikatik idazten dizuet oraingoan.

Brusselan, metroa eta autobusez gain, tranbeak dabilta oraindik "tin-tin"ka, eta geltokian zai nagoela, badaezpada ere nire ondoan suertatu den gizaseme bati galdetu diot, ea etxeraino eramango nauena. 54a, bertan gelditzen den.

Baietz, erantzun dit adi, bertara etorriko dela, eta bruselarrak ohizkoa ez duen irekitasunez galdetu egin dit, ea kanpotarra naizen. Baietz nik. Ea espainola naizen. Beno, egin dizkiot ohizko charrak, eta ulertu du ongi. Ilamandarra baita bera; hala ere esan dit.

"Bai, 'la furia española'..."

"Futbola gogoko duzu", esan diot.

Orduntxe tranbea; igo gara eta elkarren ondoan eseri.

"Barka, zer galdetu didazu?"...

"Ea futbola gogoko duzun?"...

"Ez, ez gehiegi"...

"Nola Anberesko partidu famatu hura ai-

patu didazun"...

"Hori, hori!... anekdota bat da, gizona!"; eta begira-begira gelditu zait, nire jarrera neurtzen bezala.

"Gertatzen da", esaten diot, "euskaldunak bazirela ekipatu, eta hondarribiar bat edo beste ere bai"...

"Tira", esan dit, "neuri ez zait futbola hainbeste axolarik, historiaz ari nintzen; zuen Karlos kinto enperadoreak hemen 1520an emandako aginduz areioak ziren gizonak ezpataz, emakumeak amildegietatik bera boteaz hiltzea agindu zuen, eta laster hasi ziren sutetan erretzen ere... Eta esan lezadazu Alba-ko Duke basatiak aginpean zituen 60.000 soldaduek zu orain zauden Brusselara nahi zuten gutzia egitera ekarri zituenaren zer iruditzen zaizun! A!!

"Aizu, barka, baina Alba Dukea ordu-rako sartu zen su eta gar gure lruñean (1512)".

"Bai, konforme, baina neuk esan nahi dizudana hau dela gugana etorri zen 'furia

española' hural, eta lehen bestetan egin zuten bera egin zigutela hemen, hango absolutismoa ezarriaz".

"Argi dago hori".

"Ulertzen didazu, beraz".

"Oso-osorik, gizona".

"Beno, hori da adierazi nahi nizuna, euskaldunak, bestalde, begiko ditut... Hala ere, ez zaitut bada ETAko horietako bat izango!"...

Eta niri so berriz!... Baina jekiki da, heldu da Waterloo kale nagusira, lehenengo zenbakietara, eta agurtu nau barrez... Neu, kale bereko goi aldean bizi maizenez, aurrrera jarraitu dut tranbean. Orain, gertaerak suspertuta. "Irakurri behar dizkiat belgarek historia honetaz idatzi dituztenak".

Eta hara dagoeneko lana aurkitu!

Lehenengo lantxoa, **Hondarribia** hilerokorako.

Martin Ugalde

Bidasoako arrainak eta mariskoak (II)



Izokien sasoi bertsuan, ugaldubehararren deian jarraituz, kolakak ari dira egun hauetan estuarioan sartzen, ibaian gora joanda arrautzak errutuko.

Kolakak (*Clupea Alosa*), diferentzia hau gora-behera, txardinen (*Clupea pilchardus*) familia berekoak dira, eta hauen antz handia dute, itxuraz eta azalaren kolore urdinskaz; neurritz, hala ere, askoz handiagoak izan daitezke. Emeak, arrak baino handiagoak, 60 zentimetrotara iristen dira, hiru kilo ere pisatzeraino.

Bi mota daude, aski berdintsuak beren artean, erdaraz "saboga" eta "sabalo" direlakoak, euskaraz biek izen berdinak dituztela: kodaka, kolaka, kolaza, polaka, kolagia, alata, gata eta xardina-arenke.

Azken deitura arenkearekin duen antz handiagatik datoriko.

Ur gezalak ikutzean, elikadurarik gogokoena krustazeo txikiak, intsektuak eta beste arrain txikiak batzuz ditu. Normalean sare harrapatzen badira ere, neroni, Hendaiako molaitik, antxoila biziz beitatuniko amuz harrapatzen ikusi nago. Kolakaren haragia bit fina da, eta hobeak emearena arrarena baino, baina biek, txardinak bezala, osc zakatzazu-rso meheak dituzte, aski desatseginak ahoan sartzen direnean.

KOLAKA, GAZIGARRATZAZ

Juan Jose Lapitz

Bada eragozpen hori kentzeko modurik ere. Gazigarratzaz edo mingarratzaz ("acdera" gaztelaniaz, "oseille" frantsesez) prestatzea, alegia. Gazigarratza, Asiatic etorritako landarea, basoan hazien da, orain hain zuzen ere, udaberrian. Honela zioen Cussy-ko Markesak, gastronomo frantses handiak: "Gazigarratzak, kolakari lagun egiteko baka-rik sortzen da. Kolakarik gabe, gazigarratzak ez luke izateko arrazoirik". Gazigarratzak (*Rumex acetosa*) kolore berde biziko hostoak ditu, gezi antzekoak, espinaka batzuenak bezalakoak, eta honen ezaugarriak bereziak azido oxaliko ugaria da.

Azido oxaliko honek, hain zuzen ere, du eragina kolakaren hezurxoetan, bigundu egiten dituelarik, ia urteraino eta horrela haragierekin batean jan daitezke, inolako zailtasunik gabe.

Horretarako, ezkataz kendu eta gero, arraina irekitzen da, barrenak kendu eta gazigarratzak bote freskoak bete. Gatza bota, olio, eta labean sartu. Kiloko pieza batek ordu erdi inguru beharko du. Ireki, goarmiz moduan jan ahalgo den gazigarratza atera, hezurra kendu eta haragia mantekilla urtuz busti.

Txikiak parrilan erreta jan daitezke, txardinak bezala.



Rumex acetosa. (Plantas medicinales, Pio Font Quer, Nuñez)

ELORTXURIKO AZKON MUTURRA

Jaizkibel mendiaren ifarraldetik, itsas-hegalak zehar maiz ibiltzen naiz, bereziki alderdi horretan Harri-Aroko azternategiak aurkitu nituenetik, leku-izen biltetan eta bazterrak miatzten. Ibilaldi horietako batean, 1987ko urtarrilaren 6an, aurkikuntza bitxia egin nuen Elortxuri deritzan tokian: Solutre aldiko azkon muturra.

Aldi bereko suharrizko tresneria ederrik aurkitu zen Landerbasoko Aizpitarten eta Isturitzeko Oxozelaian; hala ere, tokiz zein tailuz oso berezia deritzot Elortxuriko honi. Horregatik, Aranzadi Elkarteak 1971ean Jose Migel Barandiaran jaunari omenez eskaini zion Munibe liburukian Eibarko Enceolitos aldiko harrizko aizkoraren lantxoak eskaindu nion bezala, oraingoan Elortxuriko azkon mutur honen eskaintza izango dut aukra, ataudarek Nondik zenbaki berezia omenez eskaintzean.

Jaizkibel mendia, edonork dakienez, geologiari hondar harrizkoa da eta estratoak itsasaldera erortzen zaizkio; ifarraldera beraz. Inguru horietan, lehenik, Harri-Aroan ebiza-arrantzatik gizona bizitu zen eta geroago abelzaintzaz gure mende honen haserara arte. Bildu ditudan berriek eta aurkitu ditudan azternak erakusten dutenez, Inguru horretan kokatzen da Elortxuri, Marla deritzan ordekaren gainetik eta Justiz baserriaren azpikaldetik. Zehaztasunak honako hau gehituko nuke, Ametzakauro maldan Hondarribirako urak hartzen diren Iturgaingo errearen goiti, lehenengo sifoi-itxolaren ondoan, Marlarako bidean bertan, Instituto Geográfico y Catastral-eko 1: 50.000 eskaladun maparen 41. orrian honako koordenadak: 1° 51' 25" ; 43° 22' 44". Itasoz 70 m. goitik.

Behar bada, aurkikuntza ez da hain harrigarria, zeren duela lau urte, Marlan bertan aurkitu nuen azternategian, goi Paleolitos ezik Mustier aldiko suharrizko tresnak ere bai, Jesus Altuna adiskideak ikustatu zuenez.

Elortxuriko azkon mutur honen bixitasuna Solutre aldiko tresnak urri izateaz gain material eta tailu-

keran datza. Ereintoz hostoaren forma du, suharri beltzean bikain tailatua. Bere neurriak, alderik handienetan:

43,5 mm. luze,
20,5 mm. zabal.
9,0 mm. sendo.

Esan bezala, tailu ttipiz biziki ongi landua. Hargatik ematen dut Solutre aldikotzat, hosto iduriaz gainera lantze teknikan oinarriturik. Tailu era hori Madalen aldirako desagertu zen, nahiz eta berriro Enceolitos aldian hartara hurbildu, inoiz ez zen antzinako teknika hura gaintzera iritsi.

Inguru horretan lehenik ere beste zenbait suharrizko tresna zati aurkituak nituen, bereziki uren sifoi-itxola craikitzean irauli ziren lurretan agertuak; baina, hau ordea, izatekotan goragotik eroria izan daiteke, itxolatik hamarren bat metro gorago aurkitu nuen.

Solutre aldia duela 30 edo 35.000 urte inguruan kokatzen da. Baina ez da batere harrigarria Jaizkibelgo toki horretan aurkitzea, esan bezala, Erdiko Paleolitos handik behearxago Marlan aurkitzen denez.

Aipaturiko aurkikuntzen oroitagiria prestaturik dut, baina oraindik leku-izen jatorren xehetasunen faltaz utzia. Zeren, beldur naiz behin oker emana betiko oker



geldituko ote den eta beharrezko xehetasunak ez dira hain errezak gure mende honen lehen partetik eremutat ezagutzen den Jaizkibel mendiaren itsas-hegalcan; pertsona zaharregandik era desberdinetan jasotzen bai ditut eta agiri zaharrik urri denez. Hala ere, lehen saioa argitaratua dut "Jaizkibel mendiko izen zahar batzuk" izenburuz; ikus Euskera, XXXIII (1988), 261-271 orrialdeak. Bitartean hara hor azkon mutur bitxi horren berri, gai baretan guziok maisu izan dugun J. M. Barandiaranen, ohorez, ehunurtegarrena ospatzeko.


Juan SAN MARTIN
ARARTEKOA

Artikulu hau Ataungo "Nondik" aldizkariak argitaratu zuen 1989. Abenduan Don Jose Migel Barandiaranen omenezko alean.



Elortxuriko azkon muturra.

JOSE MARIA ETXABURU, "KAMIÑAZPI"



Jose Maria Etxaburu Etxaburu, "Kamiñazpi", 1913ko irailaren 23an jaio zen ondarrutarra Amuteko zubiaren ondoan bizi da azken urteotan "Ongi Etorri" etxeko bigarren bizitzan. Bai Ondarruan bai Hondarribian bi maitasun sutsu izan ditu: familia eta euskara.

Juanita Iginiz hondarribiarrekin ezkondu bost seme-alaba ekarri dituzte mundura eta Hondarribira: Garbiñe, Karmen, Jose Mari, Iñaki eta Sabin. Eta hamar biloba. Hamargarrena, Nagore, lerro hauek idatzi bitartean jaio delarik.

Hamabi urtetan kontserba fabrika hasita, lan horretan irau du jubilatuta arte. Lehenik Bartolomeo Scolaren lantegian eta azkenean Salvatore Orlando-renean, Italiakoak izan ditu, beraz, ugazaba kontserbagileak. Horrek, ordea, ez du esan nahi Jose Mari ideietan "kontserbadorea" denik. Bai zera! Jose Mari, harremanetan goxo eta gizalegea maite duena izanagatik, nerbio biziko kritiko gogorra duzu eta bere kabuz pentsatzeko duen gizon independentea. Nahiz eta hainbatetan iritzia beste bide batetik doala jakin, zerbait txarto dagoela iruditzen baldin bazaio, zapla esango dizu aurrean edo egunkari bateko orrialdeetan. Ez bait da zurkeriatan dabilkizun loxintxakoa.

Hondarribia lehenengo aldiz Hendaiatik ikusi zuen, gerra zela eta exiliatzen zegoela.

Bizitza osoan zehar eraman du bihotzean euskararekiko kezka larria eta mila modutara egin du lan beraren alde. Gazte-gaztetandik ekin zion euskaraz idazteari eta horrela, ezin konta ahal artikulatu idazteaz gain zazpi liburu ere egin ditu. Horietako hiru argitaratuak daudelarik, Laugarrena eman nahi du orain argitara.

Azkeneko argitaratutako duena lehenengoa idatzi zuen, 1963garrenean idatzita joan den urtean argitaratu bait zuen Auspoan "Neure lau urteko ibillerak" tituluean.

Liburu horretan 1936-1940 urteetako gora-beherak kontatzen dizkigu era autobiografikoan. Gerra garaiko ibilerak ditugu, beraz, baina ez frentekoak, exiliokoak baizik. Eta historia hori beste euskaldun askorena izan arren aski ezezaguna gertatu da guretzat.

Gerra hasten denean Jose Mari Donostiako klinika batean dago gaisotasun gogor batekin operatzeko zain. Klinikaren azpian Loiolako koartela dago eta bertako kainonazkoak eta tiro hotsak heltzen zaizkio belarrietara. Handik atera berria delarik frankistak aurrera doazela eta, 23 urte betetzen dituen egunean, Ondarrutik Donibanera alde egin behar du itsaso, beste euskaldun askorekin, Iparraldean, Landetako pinuak botatzen ibili eta bestelako estuasun latzak igaro ondoren Hego Euskal herrira itzultzekoan preso eramaten dute "Batallón de trabajadores"-era. Cardena, Miranda, Arizkun, Gaintxurizketa eta Aritxulegi dira horren testigutza isil. Gaintxurizketan ikusten ditugun ametrailladorea hahiak beraien izerdiz eginak dira. Alferrik, zorionez.

Liburua edonork irakurtzeko bikaiera errazean idatzia dago eta dokumentu paregabea da bizimodu larri hura ezagutzeko. Kontalariaren ikusmoldea ez da heroe harro batena, armarik ukitu gabe gerraren ondorio beltzak bere bizkarrean jasan behar izan zituen gizon zintzo eta bakezale baten testigantza baizik, apaltasunez eta egiaz emana.

Hiru urte lehenago, 1966an, "Ondarribiako Kondaira" argitaratu zituen. Liburuaren aurkezpena Hondarribiko Itsas Etxean izan zen. Eta ordurako bazuen ipuin bildura bat ere 1972an argitara emana "Txalintxu" izenburuarekin.

Eta baditu beste lau liburu oraindik argitaratu gabeak. Orijinalak makinaz idatzita daude eta karmelitetan txukun-txukun en-

koadermatuta: "Ondarruako abestiak", "Ondarruako kontuak", "Sasi-maxukeriak" eta "Neure idazlan bilduma".

Azken honetan hainbat aldirikaritan argitaratutako artikulua interesgarrienak bildu ditu. Jose Mariren ustez, liburu hau da denetaren ederreana, balio gehien daukana, horixe jaso baitira bere gogotak, kozkak eta sentimenduak. Orain horixe argitaratzea gustatuko litzaioke. Izan ere, "Kamiñazpi"k hamaika aldirikaritan argitaratu ditu bere lanak: garai bateko "Argia", "Ekin", "El Dia", "Euzkadi", eta geroko "Karmel", "Yakin", "El Bidasoa", "Zeruko Argia", "Goiz Argi", "Zer", "Agur", eta abarrenean. Hamaika esan dugunez, horretan uzten dugu zerrenda. Iparraldean zelarrik hangoetan ere idatzi zuen noizpait.

Amuteko etxean gaudelarik, ondoko aiportutik abiatzekotan den hegazkin distiratsuren zurrunkak zantpatzen dizkigu belarriak. Arratsaldeko bostak eta bi minutu dira zarata hura zeruan barrena urrundu eta galderak egiteari ekiten diogunean.

H: Aita hil zenean ama eta sei nebarreba zinetela esaten duzu liburuan: lau arreba zu baino zaharragoak eta bostgare na gazteagoa. Mutil bakarra, beraz. Aita Ezekiel, mariñela omen zen.

J.M.E.: Mariñela eta belerua, txalupetako belak egiten zituen, alegia. Atunetara joaten ziren txalupa handietarako egiten zituen, eta Bilbotik kargan ibiltzen ziren merkatetarako ere bai. Singer makina handiaren artizan zen belak egiten eta konpontzen. Bestela, itsasoan ibiltzen zen aita. Herriartek niri ere esaten zidaten "belero", aitari bezala.

H: Ondarruan beti "mariñel" esaten da? Ez da "arrantzale" esaten?

J.M.E.: Han, beti "mariñel"

H: Nola sartu zinen euskararen munduan, zerk piztu zuen eskaltzaleztasuna zure baitan?

J.M.E.: Ni gaztea nintzenean Ondarruan jende guztiak egiten zuen euskeraz, ehuneko laurogetamar edo laurogetamabostek. Orain erdaldun asko sartu da. Eskolan bederatzi urte arte mojekin ibili ginen. Neskak denbora gehiago ibiltzen ziren; mutilak gero maixuagana pasatzen ginen. Mojek euskeraz egiten ziguten. Hijak de la Cruzekoak ziren. Erdaraz liburuak genituen, irakurtzen ikasteko. Irakurri bakarrik egiten genuen erdaraz. Bestela, berba, euskeraz egiten ziguten. Eta dotrina ere euskeraz ematen genuen. Dotrinagaz ikasi dugu euskeraz irakurtzen. Hala bederatzi urte arte. Gero, maixuarekin, erdaraz erakusten ziguten. Baina mutilok elkarri euskeraz hitz egiten genion beti, maixuak erriertan egingo zigun bildurrik gabe. Sekula ez zigun esan euske-

raz ez egiteko. Etxean elizako liburuan zeuden bakarrik, mezea eta debozionarioak, den-denak euskaraz. Orduan euskaraz erraztasuna beti euki dot, umetatik hasi nintzen euskaraz irakurtzen.

Bestetik, osaba bat mariñela neukan, aitarien anaia, Martin Etxaburu, mariñel ilustratua, periodikua irakurtzen zuen behintzat. Euskaltzeare ez bazen eta Argia-ren egutegiak zeuzkan. Ama osabanera joaten zenean lagundu egiten nion, eta pozik joaten nintzen hara. Kajo batean zeuzkan liburua, euskerazko liburua, eta bat Kirikiñoren "Abarrak" zen. Argia-ren egutegia ere bazeukan. Hamabi urte edukiko nituen eta eskura etortzen zitzaizdan guztia irakurtzen nuen.

Gero futbolak ere izan zuen zenikusia. Hamabi urterekin sartu nintzen lanean, 1925ko urtaren lehen astelehenean. Eta behin, domeka arratsalde batean, lagun batek galdetu zidan ea futboleko Athletic-ek edo Arenas-ek zer egin zuten banekien.

Alejandrok herri guztiari buelta egiten zion, bera bakarrik bakarrik, periodikua larri batean eta bastoia hartuta. Bozina jotzen zuen. Eta ama "excelsior" erostera joan zenean honela esan zion Alejandrok: Prudentxi, zuk "Argia" erosi behar zenuke. Eta erosi zuen "Argia" ere. Eta handik aurrera asteartean periodiku biak.

Argia-rekin euskaltzalea nintzen. 1927gn. urtea zen. Irunek irabazi zuen finala, Zaragozan, Arenasen kontra, eta gauza bat gelditu zitzaizdan buruan: "A los ciento dieciséis minutos Etxebeste mete el gol de la victoria". Aurreko semifinalen Madrid-lur eta Barcelona-Arenas aritu ziren. Athletic eliminatua zegoen. Hamairu urte nituen eta zorluta nengoen futbolarekin, eta euskararekin berdín-berdín.

H: Eta idazten noiz hasi zinen?

J.M.E.: Agustín Zubikarai eta biok luistarrak ginen herrian eta harek Ekin-en idatzi behar nuela esan zidan. "Ekin" Zornotzan, Amorebieta, ateratzen zuten Jaungoiko

tuen eta lauetara bialdu nahi nuen artikulua. Eskuz idazten nuen, oso klaru, baina kopiak alera nahi nituen eta Batzokira joan nintzen Agustín Zubikarairengana.

H: Sariak ere irabazi dituzu...

J.M.E.: Irunen, oraingo sarietak hasi baino lehen beste sariaketa batzuk izan ziren, urte gutxitan. Eta lehenbiziko urtean, ez dakit noiz, neuk irabazi nuen euskeraz eta Seisdedekok erdaraz. Hurrengo urtean bigarren gelditu nintzen, Aingeru Irigarairiketa batean. Ez naiz gogoratzen zein urtean. Orain hogeit bat urte inguru izango zen. Saria jaso nueneko gaia Irungo alardea zen eta hurrengo urtean Bidasoaz hitz egiten nuen. Alta Zavalak dauka orain lan horiek. Bestetik, Gernikako Udalak herriaren seirehungarren urtemuga zela eta, sariaketa bat antolatu zuen eta han ere bigarren saria eman zidaten. Ipuinaren izena "Maitasunaren arantzak" zen. Sailkapenean, lehenengo gaia Irungo alardea izan zen, bigarrena ni, hirugarrena Abeletxe, eta "Atxukale" laugarren. 1966gn. urtean izan zen. Hondarririra etorri nintzen urtean, beraz. Irungo lehenago izan ziren. Irungo sari haiek oraingoak baino apalagoak ziren.

H: "Kamiñazpi" firmatzen duzu. Beste izenordetik erabili duzu?

J.M.E.: Zubikarairik idazten hasi nintzenean "Iturriondo" erabiltzen nuen herriko berrietan. Orduko ohiura horixe zen eta, izenordeak erabiltzea. Gerra bukatu eta urte pilo geldi egon eta gero, 1957an Zeruko Argian alera ziren lehenengo hiru artikulua, hirurak euskeraren aldekoak, baina gogorrak, el eta haietan "Iturriondo" jarri nuen. "Iturriondo" baino egokiago zelakoan, baina batean beste "Iturriondo" bat agertu zen eta orduan aldatu egin nuen eta "Kamiñazpi" erabiltzen hasi nintzen.

H: Zergatik "Kamiñazpi"?

J.M.E.: "Kamiñazpi" Ondarruko auzune berri baten izena zen. Gu joan ginen lehenengoak hara bizitzera. Haren gainean "Kamiña" ("Kamiñaga") baserri zegoen.

H: Musika zalea ere bazaitugu...

J.M.E.: Hamar urteak hasi nintzen solfeo ikasten eta hamaberekin laga behar izan nuen, fabrikara joan nintzela eta. Baina zaletasun handia nuen. Umeak ere joaten ziren eta ensegida aspertzten ziren eta askok laga egiten zuten. Nik ez, fin joaten nintzen. Fabrikatik baimena konsegiu nuen hamaberekin alera eta solfeo ikastera joateko. Bene-benetan hartu nuen. Ondarruan bi ziren solfeoak erakusten zutenak: organista eta tambolintxerua, ofiziatu bat. Eta gorra zen, gor itzela zeukan eta konturau nintzen gauza batzuk txarto erakutsi zizkigula.

H: Eta bandan ere jotzen zenuen...

J.M.E.: Hamalau urte neukazenean Ondarruko bandak huela edo egin zuen, ez dakit zergatik, eta bukatu egin zen. Orduan



Oso interesatua zegoen eta harritu egin nintzen, sekulan ez bai nuen lagunarteko koadrilan horrelakorik bazenik ere entzun. Eta orduan ni ere zaleitu egin nintzen. Garai hartan Ondarruan ez zegoen radiorik, eta telebista gutxiago, eta ez zen erraza haren berri jakitea. Orduan ez zegoen ligarik, kopa zen bakarrik. Eta amari asteartean periodikua erosteko esan nion. Kirol periodikua "Excelsior" zuen izena eta handik urte batzuetara "Excelsius" jarri zioten. Periodikua Ondarruan toki bitan saltzen zen, bat Patxikoliñoko tabernan zegoen, Kofradiairen aurrean. Han "El liberal", "Noticiero Bilbaino", Madrilko periodikuren bat, "ABC" eta beste holakoren bat saltzen ziren. Eta beste periodiku saltzailea Alejandro Badiola zen, itsua eta kojua. abertzale gogorra. Hark beste periodikua saltzen zituen: "Euzkadi", "Excelsior", "Gaceta del Norte", eta "Argia" ere bai.

Zale-koek. Eta horrela hemezortzi urterekin herriko berriak bidaltzen hasi nintzen. Gero ldiakenez kontua izan zen. Berba asko egin zen hartaz. ldiak ez mariñel getariar bat zen eta motikurak batekin endreduan hasi eta halako batean jo eta hil egin zuen. Mariñelak ziren biak eta nazionalistak bestea hil zuen. Nazionalistek esan zuten epaia ez zutela euskeraz egin eta horregatik ldiak ez zela behar bezala defendidu, ez zituela gauzak behar bezala esan, euskeraz ez zela haintzat hartu, euskeraz zapaldu egin zela eta abar. Jendea bero-bero zegoen batzokietan. Horrela, hogeit bat urte neukazala, 33an edo, idatzi nuen neure lehenengo artikulua: "ldiak ez askatu" zen titulua. Beraz hori ere ez da gauza berria. Ez nuen nik esaten txarto egin ez zuenik edo kastigatu behar ez zenik, baina bai behintzat berba egiteko aukera eman behar zitzaioela. "Argia", "Ekin", "Euzkadi", "El Día" hartzen ni-

solfeoko mutil gazteei hasi ziren deitzen, banda jarri behar zela eta. Eta batzuk hasi ginen. Lehenengo, klarinetak jotzen nuen baina hura gustau ez eta saxofoiak hartu nuen eta halaxe hona etorri arte. Trabaja-dorietatik urten nebanean ez zegoen bandarik, eta gero jarri zuten, baina saxofoiak ez zegoelako edo ez zidaten deitu. Instrumentuak Aluntamientuarenak izaten ziren. Orduan neuk erosi nuen saxofoi, saxofoi zahar bat, eta 42an sartu nintzen bandan. Juxtu-juxtu honegaz hasi baino lehenago. Lehenago hasi banintz ez nintzen sartuko. Orduan hiru astetik behin etortzen nintzen nobiarengana. Sartuberrira nintzanez, musika ezin nuen laga eta.

H: Hondarribiarekiko lotura Juanitaren bidez izan duzu, noski. Noiz ezagutu zenuen elkar?

J.M.E.: Europako gerratea zen eta alemanek antxoak salazoiaren enkargatu zituzten hara eramateko. Batean, antxoak frontieran geldituta egon ziren hiru edo lau hilabetez, eta horrenbeste denboraz, kupe-lak, jarria zutela eta, sikatzan ari omen ziren. Erosi zituenak deitu zigun eta Behobiarra etorri ginen Ondarribiatik, gatzak, salmuera bota eta ondo ipintzera. Hantxe neska pilo bat ere ari zen lanean eta bertan ezagutu nuen Juanita. Berbetan jardun, gustatu eta, badakizu... Gero, 1946an ezkondu ginen.

Egun haieketan ere izan nintzen lehen aldiz hemen. Igandea zen. Piska bat herrian ibili, txikito batzuk edan eta horrelaxe zapaldu nuen lehenengo aldiz Hondarribia. 1942ko urrian gutxi gora-behera.

H: Liburuan oso momentu txarrak bizi dituzula ikusten dugu, gorriak eta beltzak pasa behar izan dituzula gerraren zoramenak eraginda. Hala ere, pozaldiak ere izango zenituen bizitzan. Aipatuko al diguzu horietako bat edo beste...

J.M.E.: Etxera ailegatu ginenean. Haxe. Benetan momentu tristea, Landetako pihuetan, bazkalondokoa izaten zen. Lau lagun ginen eta zuhaitz baten ondoan etzaten ginen lo kulluxka egitera. Lagunak berehala gelditzen ziren lo, nik, ordea, ez nuen logarrik izaten eta pentsatzen hasten nintzen:

DEMOGRAFIA

JAIOTZAK

OTSAILA

15an: MADDALEN Alkain Zendoia

Gurasoak: Jon eta Paz

20ean: MARKEL Espino Olaskoaga

Gurasoak: Antonio Maria eta M.^a Jose

MARTXOA

1ean: UXUE Zabala Urigain

Gurasoak: Juan Ignacio eta Eva Maria

4ean: AINHOA Urtego Isasa

Gurasoak: Jose Antonio eta Izaskun

12an: JON Pascual Vito

Gurasoak: Juan Jose eta Rosa M.^a

12an: IRATI Elberdin Robles

Gurasoak: Angel M.^a eta M.^a Concepcion

EZKONTZAK

MARTXOA

17an: Francisco Lekuona Alkain, Hondarribikoa eta M.^a Luisa Garcia Hernandez, Bilbokoa

HERIOTZAK

MARTXOA

5ean: Margarita Aginagalde Arozena 87 urtekoa. San Gabriel Egoitza.

6ean: Teresa Perez Carretero 90 urtekoa Matxin de Arzu D

11ean: Carmelo Alza Ezeiza 78 urtekoa Santiago Kalea 73.

24ean: Jose Maria Manterola Arbelaiz 70 urtekoa. Landagorrieta Baserrira

25ean: Tomas Agirre Aldasoro 78 urtekoa Miramar 4 - 7

31ean: Martina Iriazabal Urbizu 83 urtekoa Kale Nagusia 26.

APIRILA

2an: Urbano Larrarte Zuzala 66 urtekoa Damari.



Ondarroako Musika Bandan

"aste batzutarako zelakoan hermitik atera eta bi urte daroguz atzerrian, bizimodurik gabe, Espainiako gerrak ere bukatzeko itxurarik ez du eta beste handiago baten bilerrez gaude hemen. Noizpait itzuliko ote gara etxera?". Gero joan egiten zitzaizkidan pentsamendu haiek baina hura infernua izaten zen. Beste momentu on bat, nobixa hartu nuenean edo...

H: Familia, Hondarribian bizitzera, 1966ko urtarrilaren 3an etorri zen. Jose Mari Ondarribian Orlando kontserba etxean ari zen lanean eta hemen ere ugazaba berearekin jarraitu zuen, jubilatuta arte. Juanitak, Jose Mari hasieran ez zuela etorri nahi kontatzen digu. Etxebizitza aurkitu zuela abisatu zionean sekulako disgustua hartu omen zuen gure gizonak. Ondarribian euskeraren alde lan egin behar zuela esaten omen zuen eta lagunak ere han zituela. Orain, beriz, oso pozik dagoela Hondarribian aitortzen digu: ez zaio damutu hona etorri izana. Seme-alabengatik batez ere.

Egia esan, sustrai indartsuak eta sakonak bota ditu Hondarribian Kaminazpik.

Hori dela eta bertako askok baino hobeto ezagutu ditu hemengo historia eta euskara ere. "Ondarribiako Kondaira" idatzi digu euskaraz, eta 1980ko apirillean Euskaltzaindiak Udaletxean egin zuen biltzar irekian Bordinarekin batean hartu zuen parte bertako euskararen berri emanez. "Ondarribiako izkerari buruz" izeneko hitzaldia eman zuen orduan eta urte hartako Euskara aldizkarian duzue irakurkizun.

Agur egitean "Hondarribia" honetako orrialdeak eskaintzen dizkiogu bere lanak argitaratzeko, baina orain ez duela idazten esaten digu, makaldu egin dela, ez dela lehen bezain ongi moldatzen idazteko. Irakurri egiten omen du asko eta ikusten dituen hizkuntz akatsak koaderno batean biltzea gustatzen zaio. Koadernoak erakusten digu. Elkarriketa honetan zehar itzuri zaizkizun okerre koaderno hori betetzeko balio badin badute, gaitz erdi...

J.A. Letamendia



PIRU-MIRU LEHIAKETA (II)

Aurreko deialdian bost arrainen berri zuzena bidalita (besterik frogatzen ez den bitartean, eta beti bezala zuzentzeko prest gaituzuelarik) bost asmatzaile hauek izan ditugu: Jaione Yarza Eguzki-Lorekoa, Aritz Lopez, Nerea Lopez, elkarren arimuan Lierni eta Itziar Mendizabalek osatutako ekipoa, eta erantzuna lehenengo aldiz bidaltzen digun Irati Bereau.

Bosna puntu dituzte.

Honelako erantzunak jaso ditugu:

1. HEGALUZZEA (Thunnus Alalunga). Arrain migratzailea da eta gure kostaldean abuztu eta irail artean agertzen da, dena den, odol beroko arraina dugunez, uraren temperaturak mugatzen du honen agerpena. Udan eta udazkenean harrapatzen da, beraz. Sarez, xaxian, eta Hondarribiko arrantzaleek kanibelaz batez ere, malotia eta bettarekin. Aritzek eta Nereak "monja" dela esaten digute, hegaluze eta hegalmotzaren arteko atun mota.

2. LEGATZA (Merluccius Merluccius). Urte guzian harrapa badaiteke ere neguan harrapatzen da batipat. Arrastorek sare harrapatzen dituzte eta Hondarribiko arrantzaleek amuz.

3. TXITXARROA (Trachurus Trachurus). Udazkenean eta neguan harrapatzen da. Arrasta sarek eta kanibelaz. Txikiak kostaldean bizi dira eta atunak harrapatze-ko beita moduan erabiltzen dira.

4. ARROSELA (bigiuga; Pagellus bogaraveo). Neguan harrapatzen da, azarotik martxora, Gabonetarako batipat. Udan ere harrapa daiteke. Gutxiena, otsail-martxo eta urri-azaroan harrapatzen da, kantilera hurbildu baino lehen. Sarez eta amuz.

5. TXARDINA (Sardina Pilchardus). Udaberrian eta neguan harrapa daiteke. Sarez.




...

Bigarren deialdi honetan Belle Époque aldian Hondarribi aldean agertu ziren Paris-ko vedette xarmant batzuen argazkia da-karkizuegu, zein baino zein apainagoa. Asmatzen duzuen bakoitzaren izen-deiturengatik puntu erdia jasoko duzue, bost puntu arte.

Erantzunak, apirilaren 27rako, betiko helbidera:

"PIRU-MIRU" lehiaketa
Euskara Kontseilua
UDALETXEA
Kale Nagusia
20280-HONDARRIBIA

JAIZKIBEL GARBITZEN



Ingurugiroko Udal Azpibatzordeak egun berezi bat antolatu zuen Jaizkibelgo zaborrak eta zakarrak garbitzeko. Horretarako apirilaren lehena, igandea, aukeratu zen.

Hondarribia babesten duen mendi hau aski zikina eta hondatua dago zenbaiten xolagaberia dela eta. Mendi zaletasuna gauza ederra da, eta basozaletasuna ere bai, baina hainbaten basakeria "pasada" lotsagarria da. Mendia guztiona da eta denok daukagu bera zaintzeko ardura eta zeregina.

Herri mobida honek helburu bikoitza

zuen: batetik mendia garbitzea, eta, batez ere, herritarren kontzientzia ekologikoa asintzea. Deia denentzat egina zen eta uste baino oihartzun zabalagoa izan zuen: "Jaizkibelen lagunak", boy scoutak, "Construcciones y Contratas", Gurutze Gorria, Dya, talde ekologistek, eta beste elkarte eta bere kasa joandako herritar askok hartu zuten parte lanean.

Goizeko 10etan hasi eta eguerdiko 12'30 arte hirurehun bat lagun aritu ziren zabor biletan. Jendea garraiatzen zuten autobusek bi aldiz joan behar izan zuten eta kotxe partikularretan ere mordsoka bat hur-

bildu zen Farola aldera. Prestaturik zeuden bokadiloak eta edariak berehala ahitu ziren.

Zakarrak bide ertzeira eramane eta hant kontainer eta kamioietan pilatzen aritu zen adin guzietako jendea. 20 tonelada edo gehiago bildu omen ziren. Sagartazuk bost kontainer eramane zituen eta lau goitilo bete ziren, eta kamioiak eta furgonetak ere bai.

Bitarteko eta tresneria gehiena Hondarribiko Udalak jarri zuen.

Bazter batzuek batez ere erabat beteak zeuden zaborrez. Kristalez eta burniz batpat. Plastikoa, berniz, gutxi zen, aurreko suteak erre bait zuen. Zikinkeria guzti hori hortxe zegoen lehen ere baina ez zen hainbeste ikusten oteak eta sasiek estaltzen zutelako. Suak bazterrak erretakoa agerian gelditu da txukuntasan guztia.

Hona, bada, esperientzia berria. Oraindik zikinkeria asko gelditzen da mila zokotan, baina herritarrak horrela kontzientziatuz gero, piskanaka garbituz joango dela espero dugu eta batez ere ardura handiagoa jokatuko duela jendeak.

INGURUGIROKO JARDUNALDIAK

Jardunaldi hauek igaz antolatu ziren lehenengo aldir hainbat ekitaldirekin. Orduko emaitza onuragarriak gogoan harturik aurreten ere antolatzea erabaki dute Hondarribia, Iruñ eta Hendaiaiko Udalek elkar harturik. Jardunaldiak ekainaren 22, 23 eta 24ean ospatuko dira, haitzaldiak, mahai inguruak, filmeak, eskoletako saioak eta abar eratuta, denak ekologia eta ingurugiroari buruzkoak. Hondarribiko Udalak die egiten die kezka duten instituzio, elkarte eta lagun guztiei, jardunaldiotan parte har dezaten.

PAPERA BERZIKLATZEN

Papera berziklatzea, paper erabilia hartu (errekortekak, puskak, egunkariak, aldirkariak, enbaltatzeko paperak...) eta, industriazko sistema egokiaz, paper berri bihurtzea da.

Paper pasta egiten duten fabrikak dira ingurugiroa hondatzen dituguten oter askoren errudunak; ibai kutsadurarena batez ere, bertara ur zikinak isurita, kiratsa, aparra eta kutsadura larria sortzen bat dituzte.

Industria hauen lehengaia egurra izaten da. Horretarako zuhaitzi zabalak bota behar izaten dira. Ondorioz, basoak solidu, zuhaitz mota autoktonoak gaildu eta ekosistemak landareria eta fauna murriztu egiten dira.

Baina lehengaia egurra izan beharrean paper erabilia baltiz, basoetan ez litzateke horrenbeste zuhaitzik botako, ibaietako eta atmosferako kutsadura gubitxi egingo litzateke, papergintzako energia-gastua murriztu, eta eguneroko isurlegietan botatzen diren hondakin solidoak ere gutxiago liratzeko, zabortegien egoera hobetuz.

Ez dira asko Komunitate Autonomo honetan papera berziklatzeko dauden lantegiak, eta oraingoz ez dago egun ere, beira-ekin egiten den bezala, papera aldiro biltzeaz arduratzen den enpresarik.

Zenbaitetan, salatzan da jendea papera bereizten, zaborrekin nahasi gabe aparte biltzen, baina gero ez daki zer egin paper horrekin.

Hau dela eta, Hondarribiko Udal Kontseilariak, Ingurugiroko Azpibatzordearen barruan, paper berziklatzearen kanpaina antolatu dute, bi helburu nagusi hauekin:

-Hiritarren artean, papera gainerako zaborteratik bereizteko ohitura sartzea. Papera ez bait da zaborra.

-Paper biltzea antolatzea. Paper hori, noski, berziklatzeko izango delarik, ez zabortegian botatzeko.

Kanpaina honetan, argibideak emango zaizkie herritarrei, buzoietan toiletoak sarturik, papera berziklatzearen abantailak laburki azaldu. Era berean, kolore nabarmeneko zabor botlsak ere banatuko dira buzoietan, herritarrek papera biltzeko bereziak.

Era berean oharrrak agertuko dira egun-

karietan, papera biltzeko egunak eta tokiak zehaztuz.

Honen helburua, informazioa herri guztian zabaltzea eta herri partaidetzarik handiena lortzea da, horrela, esperientzia gisa hasiko dena luzarora ohitura bihurtu dadin.

Lastar hasiko da kanpaina. LAGUNDU EZAZU HERRIAREN BIZIGIROAHOBEZ-ZEN! Guztion zeregina bait da ingurunearen hobekuntza.

M. Karmen Osés



LEHENGOAK BAI NEGUAK ORAINGOEN ALDEAN



Zenbat gauza bururatzen zaidan lehen-go neguak gogoratzean!

Eguraldiaren lehenengo berriak atak ekartzen zizkigun etxera. Bera, goizeko sei terdiatzen ateratzen zen etxetik lurin aldera egunkariari bila, gero liburutendara eramane eta han saltzeko. Etxera itzultzekoan nolako denbora egiten zuen esaten zion amari. Berriak, honelakoak izaten ziren gutxi gora-behera: "gaur hotz ikaragarria egiten du. Hormatua heldu naiz. Baratzte guziak txuriz jantziak dagozte. Arratsean elurra egin duela ematen du, baina ihintz jeltatua besterik

ez da. Putzuak hormatuak daude eta Amute-Kosta auzoko paretak jelaizko estalakitaz betekin dago. Ikusiko dugu zer esaten digun Ramonak etxera etortzean".

Ramona, esneketaria zen. Guadalupeko bide erdian bizi zen. Baserrian behi batzuk zituen eta egunero jaisten zen herrira etxetxe-esne saltzera.

Asto txuri txiki bat zuen Ramonak eta astoaren bizkarreko saskietan ekartzen zituen esne-kantinak. Herrian, etxe ondoan lotzen zuen astoa eta guk leihotik ikusten genuen haren etorrera.

Honelakoak izaten ziren Ramonak ematen zizkigun berriak:

"Zein eguraldi txarra egiten duen! Txirristaka egin dugu bidea astoa eta biok! Gaur horma beltza egin du. Denborak horrela segitzen badu ez dakigu zer jango duten gure behi gaisoek! Baratztean ditugun azak, porruak eta beste barazkiak galdu egin zaizkigu. Gorriak ikusiko ditugu eguraldia aldatzen ez badul".

Neguan ez zuen hotza bakarrik egiten. Eudi asko ere egiten zuen. Halako egunetan gure Ramona blai-blai eginga etortzen zitzaigun etxera eta orduan nola zegoen baratztea esaten zigun: urez bete, barazkiak galduta, eta abar...

Lehen, neguan, noiz behinka elurra egiten zuen. Xirimiria gurekin bizi zen eta eudia hasten zuenean ez zekien atertzen. Hotza egiten zuen, baina tenperatura zero-

tik behera ez zen egun askotan jaisten.

1966koa, hura, izan zen negua hura! Tenperatura hamabost gradu jaitsi zen zero azpitik. Parke guzietako ura jeltatu egin zen eta bahisten etxeetako kaineriak lehortu ere egin ziren. Etxebizitzak urez gainazka egin eta balkoi askotatik ura zerion. Arrantzaleak etxean zeuden itzazoratu ezinik, eta baserriarrak barazkink gabe gelditu ziren.

Oraingo neguak... ez ditut aipatuko, ezagun bait ditugu.

Sorkunde



HONDARRIBIKO ETA DONIBANEKO JATETXEAK BAT EGINK

Joan den martxoan bilera bat egin zen Donibane Lohizuneko Udaletxean bertako eta Hondarribiko jatetxe jabe batzuen artean. Bileraren berean Agustín Arkondegi Donibaneke zinegotzia, eta Kontxita Portu eta Jose Ignacio López Hondarribiko zinegotziak izan ziren; baita ere, Mme. Laborde, l'Office de Tourisme delakoaren zuzendaria, M. Mendibil, Laburdiko hostalararen burua; Paul Dutoournier, Araia-pasa-ko presidentea eta Juan Jose Lapitz hondarribiarra, Gastronomi Kofradien Federazioaren burua. Azken elkarte honek eragin du mugaren alde bietako jatetxeen arteko akordio hau.

Horren ondorioz kanpaina berezi bat hasi da martxoaren 23tik maiatzaren 18ra arte (Pazko eta maiatzaren 1ean izan ezik), asteburu guztietarako. Aipaturiko egunetan jatetxe horietara joaten diren guztiek txartel bat hartuko dute dohainik, eta larunbatero, gauean, zozketa bat egingo da jatetxe ba-

koitzean. Saria, bi lagunentzako bazkaria edo afaria izango da beste aldeko jatetxe batean. Hau da, Donibaneke jatetxeetan Hondarribikoetara etortzeko txartela eman- go da, eta alderantziz.

Honen helburua, jateentzako laguntza gain, Ipar eta Hegaldekoen arteko harremanak estutzea da.

Asmoa oso ondo hartu dute alde bietako udal arduradunek eta gehitu joan daiteke etorkizunean.

Donibaneke jatetxeak, Kaiku, Kaiola, La Marée, La Taverne Basque, Leoni eta Le Patio dira, eta Hondarribikoak, Abarka, Arraunlari, Kupela, Hermandadea, Roteta eta Sebastian dira. Ea bada!



HONDDARBIKO KANTA OLINPIKOA

doinua: "Egun da Santimamiñe"

HONDDARBIA, HONDDARBIA
TXOL HERRI EDER GARBIA,
BARTZELONAKO OLINPIADAK
EZ TTUK HAUEKEN ERDIA!

Euskaldun eta bikingo,
arraultzearen gorringo,
Hondarribia miñon hoberik
ez du munduak egingo.

HONDDARBIA...

Mutilari fiyakua,
neskatxari paikiakua...
zeinen koadrila ibilki da aurtien
doi-doeiz plakiyak jua?!

HONDDARBIA...

Ari-iri eta bilaba,
tiribirakin akaba...
Olinpiada hoberik inon
zure irudikoz ba al da ba?!


HONDDARBIA...

Bezperan kriston parranda,
goizean: heldu da txanda!
Ez dik balio, marikoi hori, (!)
txafo nak eta... etzanda!

HONDDARBIA, HONDDARBIA...

(!) marikola = diotenez, itsasoko hegazti ala bat.

Jesusmari Mendizabal
1990ko Hondarribiko Olinpiadetan



1.990eko IHAUTERIAK

Aurtengo Ihauteriak joan zitzaizkigun eta txardiñaren ehorzketan ohizko malloak isuri eta gero gelditzen zaigun bakarria sariak dira, irabazi dituztenentzako, noski, eta ondoko balantzea. Aurtengo sariak eta diru laguntzak honela banatu ziren:

BAKARKAKO MOZORROAK

1. SARIA: Jose Tumas Lasaga (eskalea), plaka eta 12.000 pezeta. 2. SARIA: Guillermo Sodupe (liburua), 9.000 pezeta. 3. SARIA: Eman gabe, izena emandakoak aurkeztu ez zirelako.

TALDEA

"Umoredunak", plaka eta 12.000 pezeta.

16-50 LAGUNETIK KONPARSAK

1. SARIA: Pilar Peña, plaka eta 45.000 pezeta. Klink, 40.000 pezeta. Belle Epoque-ko vedettak, 40.000 pezeta. Benta Zaharra, 30.000

51 LAGUNETIK GORAKO KONPARSAK

1. SARIA: "Txanpa", plaka eta 65.000 pezeta. Amute-Kostako Auzo Elkarte, 65.000 pezeta.

KARROZAK

1. SARIA: Itsas-Etxea, plaka eta 80.000 pezeta. Txanpa, 80.000 pezeta. Amute-Kostako Auzo Elkarte, 80.000 pezeta. Klink, 80.000 pezeta. Benta Zaharra, 60.000 pezeta. Kalekoak, 50.000

Epaiahaha, Kultur Kontseiluaren buak, Hondarribia Kirol Taldea, Musika Ban-

da, Udal Musika Eskola eta Eskifaia Abesbatzaren ordezkariak osatu zuten.

Ihauteria hauen balantzea egitean hainbat gauza aipatu dira Kultura Kontseiluaren. Umeen egunean, adibidez, datorren urtean globoak eta goxokiak banatzea proposatu da, eta erraldiak eta buruhandiak ere ateratzea. Parodiako antolaketa egokia izan omen zen baina megafoniak huts egin zuen. Norbaitek zinta batzuk gaizki grabatuak zeudela esan arren badirudi akatsa beste zerbaitetan zegoela eta agian megafoniako ekipoa bera zegoela egokitu beharrean. Tauladua, berri, altuxegoa komeni omen da honelako ikuskizunetan. Igandeko desfilea, karrozai gagozkiela, aurreko urteetan baino hobea izan da aurtien eta musika ondo banatua zegoen. Badirudi, hala ere, jende gehiago behar litzatekeela desfilea antolatzen eta halakoek ezaugarrien bat eraman behar luketela.

Epaiahahakoei zailtasunak izan omen zituzten taldeak identifikatzerakoan eta hori gerta ez dadin taldeek agiriaren bat eraman behar omen lukete edota izena ematera-koan sobre itxi batean moztaroen berri eman.

Egunkariren batean oker aipatu ziren sariak eta hori dela eta "Umoredunak" taldekoek beren saria eskatzen zuten, baina taldeak nahasi egin omen zirela eta, azken akta omen da bakarrik balio duena.

Euskal Ihauteriak ere ez omen ziren behar bezala joan Jupiter fanfarrearen musika eta jantziak zirela bide, eta, bestetik, Meakako dantza taldea ere bere kasa ibili omen

zen antolatzaileen aholkuak haintzat hartu gabe.

Amuteko ordezkariak txardinaren ehorzketan jende gutxi izan zela

zioen, eguraldi txarragatik, behar bada, eta datorren urterako ibilbidea aldatzea komeni dela.

Amute eta Txanpako ordezkariak, berriaz, kexu ziren Ihauterietako kartelak beren auzoetan ez zirela banatu ez zirelako.

Ea, bada, oharrok gogoan harturik hurrengoan are hobekiatzatzen diren gauzak.

